

GIZA ESKUBIDEAK GAUR

Joxerramon Bengoetxea

DOI: <https://doi.org/10.47623/ivap-rvap.27.1990.08>

1990.eko Ekainak 1-2an «Giza Eskubideak Gaur» izenburuarekin Symposium bat ospatu da Granadan, hiri honetako Unibertsitateko Zuzenbidearen Filosofiaren Departamentuak antolatutarik. Granadan eta egun berberetan, Zuzenbidearen Filosofiaren eta Filosofia Sozialaren Nazioarteko Elkarteak (IVR) bere urteko bilera zeukan eta IVR exekutibaren bilera horretara etorritako estatu taldearen ordezkariak, Giza Eskubideak Gaur Symposium honetako partehartzaileak izan dira. Jardunaldietan beraz, Granadako Unibertsitateko ikertzaileen presentzia aparta, oso auditorium hautua egon da.

Symposium honetan bi hitzaldi eskaini dira: bata Karl A. Mollnau irakasleak eskainia (Ekialdeko Berlindar, sic) Symposiumare izenburua zuelarik, MENSCHENRECHTE HEUTE; bigarrena Neil MacCormick University of Edinburghen Zuzenbidearen Filosofiaren irakasleak eskaini zuen, honako izenburuarekin, HUMAN RIGHTS TODAY: OF SELF DETERMINATION AND OTHER THINGS.

Kronika honetan bi hitzaldi horien berri emanen dizuet. Lehenbizikoz hitzaldien laburpen bat eskainiko dizuet (I), eta jarraian hitzaldiek sortu zituzten itaunak eta irazkinak jasoko ditut (II), nire aburuarekin amaituz (III).

I

1. KARL MOLLNAU: «Menschenrechte Heute» (Giza Eskubideak Gaur)

«Mundua sakonki eraldatu da, orain egin behar duguna mundua interpretatzea da». Horrela Feuerbachekiko Marxen tesi ezagun horri buelta ematen dio Mollnauk. Gogoratu Marxek esaten zuela filosofariek ordura arte mundua interpretatzea besterik ez zutela egiten eta kontua mundua eraldatzea zela. Mollnauren ustez sozialismo errealearen porrota kanonizaturiko marxismo leninismoaren porrota izan dela aldi berean eta ondorioz sozialismoa, kontzeptu bezala eta eredu soziala bezala deskreditaturik dago. Eta hementxe datza perila: sozialismo errealearen porrotarekin batera, justizia soziala eta gizarte lagunkidearen (giza arte lagunkide eta naturarekiko lagunkide) idealak ahaztearen perila. Historiaren eskarmentuak dio iraultza bakoitzean kontrairaultza zelatan dabilela.

Dena den, eta mundua interpretatzearen asmoa berea eginez, Mollnauren ustez ekialdeko European azkenaldi honetan gertaturiko iraultzak, giza eskubideak lortzeko iraultza demokratikotzat jo daitezke. Estatu sozialistetan ez zen ofizialki onartzen giza eskubideen defizit bat zegoenik edo bestela defizit hori ideologikoki estaltzen zen. Esate baterako zuzenbidearen filosofariek giza eskubideen gaiari ekin nahi zioten bakoitzean ikuspuntu historiko batetik edo enbaxadore taktikarekin egin behar zuten. Guzti hori aldatu da orain.

Baina giza eskubideak nola ziurtatu, hori da gakoa. Alde batetik orain gertatu diren bezalako iraultza demokratikoen bidez. 1989.eko Urrian eta Azaroan Alemaniako Errepublika Demokratiko (AED)aren kaleetan, Leipzigen batez ere, eman ziren ekintzek 1919.eko iraultzaz baino gehiago 1789.eko edo

1848.eko iraultza burgesetaz gogorarazten digute. Beste hitzetan esanda ekialdeko Europar errepubliketako biztanleak «kamaradak» bihurtu ziren lehendabizi «citoyens» izan gabe. Baina Mollnauren ustez giza eskubideak posible egin ahal izateko, gerratearen arriskua eta istripu ekologikoen arriskua desagertarazi eta herri garatuen eta herri ez garatuen arteko ezberdintasun ikaragarria gutxitu behar dira. Eta bi elementu hauek, bai erregimen demokratikoarena, bai existentziaren gutxiengo baldintzera elkarloturik daude, eta juristen zeregina bi ardatz hauetan datza: giza eskubideak babesteko eta egikartzeko mekanismo juridikoak aurreikusiz eta gatazken konponketa baketsua ziurtatzeko prozedurak diseinatzu.

Stalinen heriotzatik sozialismo errealairen sistema politikoa zuzenbidearekiko despotikoa bihurtu zen. Aitzindari gorenak eta beraien aparatxnik zuzenbidearen gaidikoak ziren zuzenbidearen menpe izan orduko eta honen ondorioz alderdi komunistak *Rechtsstaat* edo zuzenbidezko estatuaren ideia aurrakatu ziren. 1989.eko Azaroak 4an miloi erdi bat manifestari Berlingo *Alexanderplatz*era azaldu ziren honoko slogan oihukatzen zutelarik: «Estatu segurantzarik hobereana Zuzenbidearen segurantzak da» («Rechtssicherheit ist die beste Staatssicherheit»). Giza eskubideak mugimendu sozialek lortzen dute eta ez gizabanakoek.

Sozialismo errealairen aurkako iraultzek erabili duten libertatearen kontzeptioa gizabanakoaren indibidualtasunean oinarritu da. Gizabanakoaren libertatea burujabetasuna (Selbstbestimmung eta Selbstverwirklichung) bezala ulertzen da eta baldintza ekonomiko batzuk aurreuposatzen ditu eta eskatzen ditu. Jendearen kontzientzian sozialismo errealairengan ba zegoen halako erlazio bat gizabanakoaren «babes» burokratiko eta produktibitatearen beharadaren artean, eta AEDan batez ere, ezen hor mendebaldeko Alemaniaren ereduak. non lanaren produktibitatea %40an altuagoa den, ondo ondoan baitzuten Errealismoari amore emanaz erran daiteke giza eskubideen egikartzeko prozesuak, zuzenbidearen bitartez, ezin duela izan gizartearen maila ekonomiko eta garapen ekonomikoek markatzen dutena baino altuago, baina ezta apalago ere. Justizia sozialak, bai gizarte barruan bai gizartearen artean, gero eta oreka ekonomiko zehatzago bat eskatzen du.

Baina giza eskubideen egikartzeko amaierarik gabeko prozesu bat da. Giza eskubideak ez dira inoren oparirik, ez dira estatuen kontzesiorik ere. Giza eskubideak mugimendu sozialek lortzen dute gizartearen behar diren baldintza ekonomiko, politiko eta kultural ematen direnean edo eman daitezkeenean. Eta hain zuzen ere hemen datza herrien burujabetasunaren eta giza eskubideen egikartzeko arteko lotura. Giza eskubideak dira herriaren autodeterminazio eskubidea gizabanakoaren mailan. Herri baten autodeterminazio eskubidea ukatzen duen estatuak herri horren biztanleen burujabetasuna edo autodeterminazio eskubidea, beraien giza eskubideak beraz, ukatzen ditu aldi berean. Eta azken hilabetetan gertaturiko iraultzek erakusten diguten bezala giza eskubideen eskakizuna nortasun nazionalaren berpizkunde batekin batera etorri da. Zoritxarrez, nazionalismoaren zenbait joera ilunago ezin dira aurrez aurre ikusi, eta oharra hau bi Alemani dagokie.

2. NEIL MacCORMIC: «Human Rights Today: Of Self-Determination And Other Things»

Giza eskubideei buruz mintzatzen denean badirudi erran daitekeen gauza bakarra zera dela «ni alde nago!» ala «niri bost axola!» (Hauxe da azken finean

etikaren teoria hunkigarrikorrek edo emotibistak postulatzen dutena: etikaren esakundeak sentimenduen adierazpenak direla). Baina giza eskubideen alde egoteak problema teorikorik sortzen ez duen bitartean eskubideen kontzepzio jakin batzuk defenditzaerakoan edota giza eskubideak bidezkotzaerakoan kezka erruz agertzen da.

2.1. Giza Eskubideen rhetorika unibertala

Gaur egungo munduan giza eskubideen alde nazioarteko aldarrikapen eta paktu solemne franko dago. Eta rhetorika ofizial honek badu bere eraginik. Gaur egun giza eskubideen diskurtsoa politikan erabiltzea beharrezkoa egin zaigu eta askorentzat hau Zuzenbide Naturalaren teorien garaipen bat da. Baina bestalde aldarrikapen ofizial horiek egiten dutena eskubide naturalak positibatzea da: nazioarteko zuzenbidezko «indarreango» testuak sortuz. Filosofikoki, giza eskubideak Zuzenbide Naturalaren teorietan oinarritzen dira, baina berauen baliotasun juridiko formala eta esan nahi politikoa bestelako arazoak dira.

Giza eskubideak aldarrikatzen dituzten testu juridikoen formaltasunak eskubide horiek tinkatzen ditu beren inbokagarritasuna ziurtatuz, baina aldi berean formaltasun horrek giza eskubideen kontzepzio berezi edo mugatu bat jasotzen du eta, hau ikusirik, autore batzuen iritziz giza eskubideen unibertaltasuna kolokan jartzen da. «Unibertal» izan nahi duten giza eskubideen aldarrikapen batzuk azken finean kontzepzio berezi, erregional eta etnozentriko baten fruitu dira (estatu liberal industriaduen kontzepzioak kasu). Adibide gisa horra hor opor ordainduaren instituzioa, zeina gure kulturaren erabat erroturik dagoen baina beste kulturetan arrotza den.

Giza eskubideen positibatzeak eskatzen digu giza eskubideak bi diskurtso artean koka ditzagun. Bata giza naturari buruzko diskurtso praktikoa da eta bestea eskubide positibo eta mugatuarena da. Diskurtso praktikoa giza eskubidea zer denaren galdera erantzun behar da: MacCormicken erantzun analitikoak zera da: badirela Ongi batzuk gizaki guztientzat onak diren eta hain oinarritzko maila batean direla onak ezen gizaki batengan faltan badira orduan gizaki horrek gaitz bat sufritzen duen edo gizaki horri gaitz bat egiten zaion; giza eskubideak Ongi horietaz gozatzeko eskubideak dira. Baina eskubide horiek definitzeko eta egikartzeko eskubideen eta zuzenbidearen kontzepzio berezi batzuegan eta konponketa instituzional bereziengan oinarritzen da zuzenbidea: adibidez Europar eta Amerikar egoeratan prozesu juridikoaren kontzepzio lehiakaria (adversarial) nabaritzen da non eskubideen erregimen bati obligazioen beste erregimen bat dagokion, non epaileak akzioa hasi duen pertsonari eskubide bat onartzen dion eta eskubide horri dagokion obligazioa beste pertsona bati ezartzen dion eta non eskubideak eta obligazioak gizabanakoei dagozkie, eta ez giza taldeei.

Ez da ahanzi behar konponketa instituzionalak bestelakoak izan daitezkeela eta badirela giza Ongi batzuk eskema honetan sartugaitzak direnak, ingurugiroaren ongiak besteak beste: zuhaitzak, urak, ozonoa... Ongi hauen jabetasuna eskubidearen bitartez edo prozesu lehiakariaren bitartez defenditzea zaila da oso. Ongi ekologiko horiek ez dira eskubideak, eskubideak gozatu ahal izateko aurrebaldintzak baizik eta horrexegatik Ongi horiek babestu ahal izateko ez gara eskubideen teknikaz baliatzen eta mekanismo instituzional berriak behar ditugu.

2.2. Noren eskubideak?

Azken adibideak erakusten digunez ez da beti erreza izaten eskubideen jabeak zeintzuk edo nortzuk diren zehaztea: natura?gizakiak? gizabanakoak? Pertsona helduak? argitasun mentala duten pertsonak? Halako galderak eskubideen mugazko kasutan agertzen dira: euthanasia, ikerketa enbryologikoa eta abortatzea kasu. Halako kasutan aurkako kontzepzio ezberdinen arteko oreka eta eskubideen tituludunen arteko oreka bat lortu behar dira eta galdera zehatz asko erantzun behar dira, baina galdera horiek ezin dira aurrez aurretik erantzun, eztabaida eta tirabira prozesu baten ondorioz baizik. (Hona hemen oreka erreflexiboaren ideia: reflective equilibrium).

2.3. Autodeterminazioa

Eta ikusi berri dugun problemaren ildotik jarraituz, galdetuko dugu: noren eskubideak? gizabanakoenak bakarrik? Giza taldeenak, nazioenak ere? Ba al dago herrien autodeterminaziorako eskubiderik? Herrien autodeterminaziorako eskubidea giza eskubidetzat jo al daiteke?

Paradoxa baten aurrean gerade: alde batetik autodeterminazio printzipioak mundu garaikide politikoaren eraikuntzan garrantzi handia du (batez ere 1919.etik W. WILSON presidentearen doktrinarekin) eta ekialdeko Europan ematen ari diren aldaketa politiko asko printzipio honetan inspiratzen dira: Alemanien birbatasuna, Errepublikak Baltikarren aldarrikapenak; baina bestaldekik printzipio hau, eskubide hau, oso gutxitan egikaritzen da eta egikaritzen denean ere eztabaida eta polemika gogorrak sortzen dira horren inguruan, batez ere eskubidearen tituluduna dela eta. Polemikaren ardatz nagusiak honoko bi hauek lirateke: nazioaren ideia kolokan jartzea edo/eta autodeterminazioaren statusa printzipio morala bezala ukatzea. Liberalak eta sozialistak ez dira nazionalismoaz fido, kasu gehienetan muturrezko nazionalismoa buruan dutelako, baina herri kolonizatuen eta ekialdeko europar herrien nazionalismoa onartzen dute eta nazionalismo hori autodeterminazioaren printzipioan oinarritzen da. Liberalen kasuan gizabanakoaren autonomia aldarrikatzen dute printzipio nagusi bezala eta honek individualismo gogor bat suposatzen du. Baina ez da ahantzi behar gizabanakoak gizarte batean eta testuinguru sozial eta kultural batean garatzen direla. Datu honek ez du autonomiaren ideia deuseztatzen, baina bai mugatu. Beste hitzetan esanda: atomismo metodologiko bati eustea oso zaila den bitartean individualismo normatiboa edo araukorra guttiz gomendagarria da, autonomia oinarritzko Ongi bat da eta.

Individualismo normatiboak, gizabanakoen autonomiak zera eskatzen du: taldearen buru eratze politiko motaren bat, askatasuna eta autonomia defendituko dituen gobernu batean partehartze motaren bat eta erredistribuzio sistemaren bat. Askatasuna edo libertatearen kontzepzioak, autonomia bezala ulertzen direnean, autodeterminazioaren ideia garrantzitsuak; autodeterminazioa zentzu bikoitzean: gizabanakoen autodeterminazioa komunitate politiko baten barman eta komunitatearen beraren autodeterminazioa eta burujabetasunera beste komunitateekiko.

Baina komunitatea nola definitu? Nazioa nola definitu? Nazio bat dugu pertsona multzo bat kontzientzia amankomun bat duenean, eta kontzientzia hori elementu ezberdin batzuen gain eraikiz doa: mintzaira, mitologia, musika, dantza, artea, ohiturak, tradizio juridikoak, erlijioa, e.a. Nazioa ez da gizabanakoen

sumadurarik atomismo metodologikoak postulatu duenaren kontra, eta nazioak ez ditu gizabanakoak erabat determinatzen. Nazioak ez dira kimerak, nazioak «faktu instituzionalak» dira, inputazio edo egozketa puntuak moralean, politikan eta kulturen eta zentzu honetan existentziadun izakiak dira. (Ene ustez ideia hau ez dago batere garbi, baina MACCORMICKek ez zuen argitu).

Baina hemendik zer segitzen da politikoki edo moralki? Jende askorentzat nazioa bere nortasunaren eta gizatasunaren elementu bat da eta neurri honetan behintzat nazioak errespetua merezi du: kasu hauetan pertsonetikiko errespetuak nazioekiko errespetua eskatzen du. Baina nazioek eskaera eta helbide politikoak dituzte: gutxienez, nazio bezala jarraitzeko eta garatzeko. Honek suposatzen du halako nazioen arteko errespetu bat, nortasun nazionalen errespetua hain zuzen ere. Honek ez du derrigorrez esan nahi nazio bakoitzak subiranoa izan behar duenik, hori estrategia politikoaren eremuaren arazoa baita. Europar Elkartearen estatu subiranoaren gainetik ikusten ikasiz goaz.

II. Kritikak eta Irazkinak

Zati honetan jardunaldietan sortu zen eztabaidaren berri eman nahi dut, nireak diren kritikak hauekin tartekatuz.

Marxismo eta giza eskubidetan aditua den E. KAMENKA oso gauza interesgarri bat esan zuen; alegia Mollnaurekin ados zegoela giza eskubideak lortzeko sortzen diren iraultzak mugimendu sozialek lortzen eta burutzen dutela esaterakoan, baina horretarako zenbait baldintza egokik behar duela egon: adibidez ahultasunaren bat boterean. Iraultzak behetik burutzen dira baina goialdeko egoera kontuan hartu beharrekoa da. Ene ustez 1989.eko iraultzak prozesu eraldakor batekin batera etorri dira. GORBATXEVEN «perestroika» eta «glasnost» aitzakitzat hartuz eta SESBen (URSSen) politika berria aintzakotzat hartuz, beste estatu sozialisten barneko gaietan ez sartzearena hain zuzen ere, bai Polonian, bai Ungrian, bai AEDn, bai Txekoslovakian herri mugimenduek beren iraultza baketsua burutu dute, aurretik hasitako eztabaida eta estrategia bati jarraituz. Irekitze eta eztabaidatze prozesu honek hasi besterik ez du egin ezen Errepublika Baltikarrak ildo beretik doaz. Errumaniako kasua bestelakoa da: hor ez zegoen iraultza burutzeko eztabaida edo estrategia diskurtsiborik (*Neues Forum*, Foru Demokratiko eta abarren antzeko zerbait) eta plangintza eza horren ondorioak orain ari dira jasaten.

R. DREIER Gottingengo irakasleak ingurugiroaren arazoa planteatu zuen: gure eskema kontzeptualetan nola azaltzen dugu ingurugiroaren defentsa? Giza eskubideen hizkuntza horretarako egoki al da? Batzuentzat natura eskubide tituludun izan daiteke, baina orduan ikusten da nolatan giza eskubideen teknika ez zaio naturari balio. Dreieren ustez naturak ezin du eskubide-tituludun izan, eskubideak pertsoneri eta gizataldeei dagozkielako. Beraz, natura aurrebaldintzat jo beharko dugu: giza bizitza naturarekiko egoera jakinetan garatzen da eta egoera horiek ezin dute puntu batera iritsi non giza bizitzaren kalitatea, termino ekologikotan neurtua, gutxiagotzen den. Giza eskubideetaz gozatu ahal izateko zenbait gutxienezko baldintza ekologiko beharrezkoa da (ikus ere MACCORMICKen hitzaldia). Naturak babes juridikoa behar du, beste babes moten artean, baina hemendik ez da segitzen naturak eskubide tituludun izan behar duenik.

Beraz eskubideen hizkuntza ez da aproposa naturarentzako. WELLMANek antzeko sistema kontzeptual bat aplikatu zien giza taldeei: behar bada eskubideen

hizkuntza ez da taldeentzako egokia. WELLMANek onartzen du kolektiboak, nazioak, taldeak, komunitateak babesa behar dutela eta interesak dituztela, baina bere ustez eskubideen hizkuntza gizabanakoei dagokie eta beraz ez du talde interes horiek babesteko balio. Hau oso puntu garrantzitsua da. Giza eskubideak babesteko diseinatu diren teknikak indibidualistak izan dira eta taldeengana eramaten ari gara orain baina gure diskurtso politikoa ez da oraindik horretarako egokitu eta WELLMANen ustez ez dago egokitu beharrik. Baina talde interesak nola defenditu orduan? Nik esan dezaket Skotiak edo Euskalerrriak ba dutela beren ohiturak eta tradizioak babesteko interesik. Baina babesa hori eskubideen teknikaz ez ba da lortzen, nola lortuko da? Zein da interes horiek babesteko erabili behar dugun diskurtsoa? Erantzun posible bat litzateke interes horiek talde horien partaideen eskubideen bitartez babestea. Horrela nik, euskaldun bezala ba dut nire kulturaren eta nire hizkeraren bizitzeko eskubidea eta nire eskubide horiek babestuz nire herriaren interesak ere babesten dira. Baina ikuspuntu honek taldeei garrantzia kentzen die, atomismo gogor batean eroriz: zer gertatuko litzateke kultura eta hizkera horiek desagertuko balira? Kasu horretan ez nuke nik kultura eta hizkera horretan bizitzeko eskubiderik izango eskubidearen erreferentzia faltako litzaidakeelako.

M. KARLSSON, Islandiarra puntu interesgarri honi atxekitu zitzaion. Hizkuntz aniztasunaren balioa, kultur ezberdintasunen balioa defenditzeko eta hizkuntzen eta kulturen babesa eta garapena eskatzeko ez dago nazionalista izan beharrik, ezta nazionalismoaren retorika bereganatu beharrik. Gauzarik premiazkoena zera da: aniztasun eta ezberdintasun horren iraupena nola ziurtatu gure mundu honetan eta nazioarteko mailan, non hizkuntz eta kultura gutxiengotuen iraupena perilean dagoen. Nire ustez KARLSSONen irazkin hau oso egokia da. Benetako arazoa praktikoa da: hizkuntzen jarraipena eta erabilera nola ziurtatu, hizkuntza hortaz mintzatzen diren herriak eskubide-tituludun izan ala ez izan. Arazo hau Europar Elkartearen planteatzen da gehienbat. MACCORMIKek erantzun zion baietz hizkuntzen eta kulturen aniztasuna berez oinarritzko Ongi bat dela eta gizakiak hobeto gaudela aniztasun hori mantentzen edo gehitzen denean, eta okerrago bizi garela aniztasun hori desagertuz doan neurrian, beraz hizkuntzen aniztasuna Ongi objektiboen balioa du ia ia.

W. SADURSKI, Australiatik etorritako irakasleak esan zuen berari ez zitzaioela inportarik ea munduan 120 edo 110 hizkuntza dagoen. Hizkuntzak eta kulturak balioa dute beste ongi bat(zu) lortzeko baliagarriak diren neurrian, alaitasuna edo jakituria kasu. Ez ditugu hizkuntzak eta kulturak Ongi objektibo edo transzendenten mailara jaso behar. Honek ba du WELLMANen kritikarekin zerikusirik. Ene ustez Sadurskiren kritika hau ez da zuzena. Pertsonen ongi izatearen eta alaitasunaren barruan hizkuntzen aniztasuna sar daiteke, eta bestalde SADURSKIk berak alaitasuna goi mailara edo ongi objektiboen mailara jasotzen du. Zergatik bai alaitasuna eta ez nortasun nazionalarekiko errespetua?

III

Ihardunaldi hauetan oso arazo interesgarrietaz eztabaidatu da. Alde batetik historia garaikidearen interpretazio arazoa dago: zerk inspiratu ditu ekialdeko europar gertatu diren eraldaketak?, giza eskubideen eskaerak?, boterea lortzeko asmoak?, demokraziaren nahiak? Zein da 1989.eko iraultzen esan nahi historikoa? Zer nolako erlazioa dago zuzenbidearen doktrinen, zuzenbide positibo,

egoera eta baldintza politiko eta ideologien artean? e.a. Bestalde giza eskubideen kontzepzio berrietaz mintzatu da: ingurugiroaren arazoaz, herrien eskubideetaz, e.a. etaz. Guzti honetaz ezin dugu orain mintzatu.

Irazkin orokor baten gisa aipa dezadan nolatan giza eskubideak eta zuzenbidezko estatua (Rechtsstaat) loturik doaz: zuzenbidezko estatuaren doktrinak eta legalitatearen printzipioa batez ere giza eskubideak babesteko tresna egokitzat jotzen dira. Gizabanakoen mailan egokiak dira, baina gizatalde mailan ez digute orain arte balio. Europan zehar gertatzen ari diren mugimenduak interpretatzerakoan arazo hau kontutan hartu behar dugu. Bai ekialdeko Europan, bai mendebaldeko Europan Elkartearen herrien autodeterminazio eskubidea aldarrikatzen ari da orain. Lituaniak eta Euskadik beren aldarrikapena egin dute. Euskadiko kasuan asko matizatu behar da noski, baina lehen urratsak ematen hasiak gara. Ea Skotian, Cymrun (Galesen), Breizhen eta beste lekutan gauza bera gertatzen den. Baina taldeen eskubideen kontzeptu eta teoria bat eraikitzeko orduan hainbat problema sortzen da, orain arte erabili dugun diskurtso politiko eta juridikoa gizabanakoari loturik egon delako eta gizabanakoari dagokion babesaren eta teknika taldeengana extrapolatzeko orduan zailtasunak aurkitzen ditugulako.

